



KONTSUMORAKO KREDITUA ETA ZORPETZEA

Kontsumorako kreditua bankuek ematen duten kreditu mota bat da. Kreditu horren helburua da bezeroaren behar jakin bat finantzatzea, bezeroak edozein enpresa jarduera edo lanbide izanda ere. Oso altuak ez diren ordainketak egin behar dituztenentzat eta anean bertan ordaindu ezin dutenentzat dira horrelako kredituak. Esate baterako, autoa erostea, bidaiak kontratatzea, inbertitzeko aukeraren bat,... ordaindu behar dutenentzat pentsatuta daude.

aurrera doan herria

un país en marcha

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, MERKATARITZA
ETA TURISMO SAILA
Kontsumo Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
COMERCIO Y TURISMO
Dirección de Consumo

KREDITUAREN EZAUGARRIAK HAUEK DIRA:

- Epe motzekoak dira. Epea hilabete batekoa eta bost urte bitartekoa izan ohi da.
- Uzten den kapitala ez da oso handia.
- Interes tasa altua du.
- Ordaintzeko malgutasuna.

NOLA JOKATU BEHAR DUGU KREDITUA ESKATZEAN?

1. Finantza erakunde batzuek zein besteek zer abantaila eta eragozpen dituzten aztertu behar dugu. Beren artean alderatuko ditugu.
2. Ahal badugu, zuzenean joko dugu finantza erakunde batera. Izan ere, bitartekoren batengana jotzen badugu, kreditua garestiagoa izango da, bitarteko horren ordainsariengatik.
3. Informazio hau aztertu behar dugu: finantzatzeko erak, horrek zer gastu dituen, dirua itzultzeko erak eta zer eskubide ditugun.
4. Kreditua kontratatzen dugunean negoziatzen saiatu behar dugu. Arreta handia jarri behar diogu aplikatzen zaion interes tasari, edota kreditua alde aurretik ordaintzen badugu horrek dakarren kostuari.
5. Garrantzitsua da mailegua tasa finkokoa ala aldakorrekoa den jakitea.
6. Komeni da gure kredituen historiala berrikustea, alde aurretik kreditua emango diguten ala ez diguten jakiteko, eta, beraz, denborarik ez galtzeko.
7. Mailegu mota guztietan komisiok negoziatu behar ditugu. Izan ere, dirua uzten duen finantza erakundea komisiolari gehitzen dion marjina batez baliatzen da komisiu horrekin kredituaren baldintzak negoziatzeko.
8. Batzuetan, dirua oso epe motzera behar badugu, gure kreditu txartelak kontsumorako kredituak baino interes txikiagoak izaten ditu. Aukera hori ere aztertu egin behar da.

Gogoan izan:

- Kontratuak dirauen bitartean, finantza erakundea behartuta dago sinatutako kredituari buruzko informazioa ematera. Normalean kontu laburpenak erabiltzen ditu horretarako.
- Noizbait ezin baditugu adostutako ordainketak egin, garrantzitsua da lehenbailehen kontratua berriz negoziatzera joatea. Hobe da lagun arteko irtenbide bat aurkitzea, zailtasunak eta kargu handiagoak ekarriko dizkiguten neurriak jasatea baino.

ZER DA ZORPETZEA?

Pertsona batek noizean behin edo askotan bere zorrak ordaindu ezin dituztenean sortzen den egoerari esaten zaio.

NOLA IRISTEN GARA ZORPETZERA?

Batez ere bi arrazoi daude zorpetzeko:

Diru sarrerak gutxitzea: langabezian geratzeagatik, aldi baterako lana izateagatik edo lana kolokan egoteagatik, aldi baterako ezintasuna edo ezintasun iraunkorra izateagatik, dibortzioengatik edo bikotea hil izanagatik...

Gastu gehiago izatea: beharrezkoak ez diren ustekabeko gastuengatik, neurririk gabe erosteagatik, kreditu txartela gehiegi erabiltzeagatik, aurrekontua ez kontrolatzeagatik...


NOLA JAKIN DEZAKEGU ZORPETZEKO ARRISKUAN GAUDEN?

Zorrak diru sarreraren %70etik gorakoak dira

Zorrak diru sarreraren % 50etik 70era bitartekoak dira

Zorrak diru sarreraren %20tik 50era bitartekoak dira

Zorrak diru sarreraren %20tik beherakoak dira



Kontuan izan behar da %20 baino gehiagoko zorpetzeak etengabeko zor egoera bat inplikatu dezakeela

Hau dela eta epe luzeko zorrak hartu behar baditugu, ez dugu gaur egungo egoera bakarrik aztertu behar. Gure zorrak iraungo duen urteetako egoera ekonomikoak aurreikusitu behar dugu.

NOLA HARTU AURREA ZORPETZEARI?

1. Behar-beharrezkoa baino ez denean eska ezazu kreditua. Ez ohitu zorpeturik bizitzera.
2. Ez kontsumitu pentsatu gabe eta neurritz kanpo. Aztertu zer premia eta zer betebeharrak dituzun. Bereiz itzazu ordezkazina dena eta benetan behar duzuna.
3. Kreditua eskatu baino lehen, kontuan izan zorraren zama jasateko gai izango zaren.
4. Azter ezazu hilean zer kreditu eta betebeharrak dituzun. Ondasunak eskuratzeak edo zerbitzuak kontratatzeak ez du bizi kalitatea hobetzen. Are gehiago, estresa eta urduritasuna sortzen ditu eta gutxi asebetetzen gaitu.
5. Gastuen, kontuen saldoen eta ordainketa epeen kontrol zorrotza egin.
6. Ahal den neurrian, beharrezkoak ez diren gastuak murriztu.

ZORREN ORDAINKETA KONTROLATZEKO IDEIA BATZUK

- Zenbat diru zor duzun eta hilean zenbat ordaindu behar duzun jakin eta gero, garrantzitsua da zorra murriztea lehenetsutzat hartzea.
- Diru iturriak argi eta garbi identifikatu, bai uneko diru iturriak bai etorkizuneko diru iturriak.
- Eguneroko edo hileko lehenetsunak identifikatu. Bila itzazu gastu batzuentzat irtenbide ekonomikoagoak.
- Nahitaezko gastuak eta nahitaezkoak ez direnak bereizi. Azken gastu horiek nolabait murrizten saiatu.
- Eskuragarri duzun dirua, bai eta hil amaieran soberan duzuna ere, zorrak murrizten inbertitu.
- Gastuak, diru sarrerak, zorren epemugak... nonbaiten apuntatu eta eguneratuta izan. Zure aurrekontua kontrolatzeko era bat da.
- Aurrekontua guztiz egituratuta duzunean iristen da hartzekodunekin negoziatzeko unea.